

Gotzon Barandiaran

IDAZLEA

Legeak, indarkeria, erantzukizuna, zigorrak

Legeak betetzeko daude. Eta betearazteko. Legeak betetzeko asko gaude. Eta betearazteko, balantzan, oso gutxi. Zer den legea gutxi batzuek erabakitzen dute. Zelan betearazi beste hainbestek.

Lege asko adostasunez betetzen ditugu, samaldan bizitzea bururatu zitzaigun behinola eta ordutik ezinbestekoak direlako onartzen ditugu legeak, edo beti behar dugulako aginduko digun norbait, nondik jo behar dugun esango digun norbait. Ongia eta gaizkia zer den bereizten erakutsiko digun botereduna. Eta boterea eskuratu duena ohitu egiten da, ez daki botere barik bizitzen, nagi izaten da beste inoren aginduak betetzen bizi garenon bestalde honetara etortzeko, bisitan baino ez bada ere. Eta badaezpada, bestalde honetako lege betearazleok irrika zein gurari arriskutsurik izan ez dezagun, bestalde honetako batzuk limurtzen ditu legea betetzeaz arduratu daitezten, mugaz bestaldeko gehiegi aztoratu eta samaldan ihesaldi kontrolaezinik gerta ez dadin. Eta limurtzen dituztelarik, samaldakideak bereizten irakasten diete, bereizitako horiek gorrotatzen irakasten diete, kalean jipoitzen irakasten diete, torturatzen irakasten diete, beharra izanez gero, hiltzen ere badakite.

ETAren jardunaren aurka egotea, ETAren jarduna gaitzestea, okaztagarria iriztea zilegia da. Ez hori bakarrik, legekoa eta legepekoa da.



INIGO AZKONA

Ostera gobernu espainolaren eta frantsesaren jardunaren kontra berba egitea, Frantziako, Espainiako, Euskadiko zein Nafarroako poliziaen jarduteko eraren aurka, gutxi batzuek asmatzen dituzten legeen aurka, mugaz bestaldean gaudenon aldean oso gutxi diren batzuen interes ekonomikoen arabera onartzen diren makro egitasmo ekonomikoen aurka egotea ez da zilegia, hain gutxi legekoa edo legepekoa.

Ondorioez ari naiz, noski. Izan ere, gaur dela hamar bat urte arte (aurten beteko baitira *Egin* eta *Egin Irratia* itxi zituzteneko urteurrena) ETako kide batek, atxilotu eta ziurrenik torturatzen zutelarik, urte luzeetako gartzela zigorra izaten zuen. 1998tik hona, ETakoa dela ez dakienak ere, urte luzeetako kartzela zigorra izaten du.

Zergatik? Gutxi batzuek horretarako legeak asmatzen dituztelako eta bete daitezten indarkeria erabiltzen dutelako. Baina zer gertatzen da, urteek aurrera egin ahala, samaldak legeok okerrak izan zirela erabakitzen badugu? Legeak asmatu eta betearazi zituzten horiek, izango dute erantzukizunik? Eta zigorrak? Mugaz bestaldeon bizi garen samaldakide bereiziek gorrotatu, jipoitu eta torturatzen gaituzten horiek, izango dute erantzukizunik?

Jasoko ote dute zigorrak? Egunen batean frogatzen bada samaldakide bereiziek frogarik izango ote dute zigorrak? Nor izango da erantzulea? Izango ahal du zigorrak? ■

« Mugaz bestaldeon bizi garen samaldakide bereiziek gorrotatu, jipoitu eta torturatzen gaituzten horiek, izango dute erantzukizunik? »

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Ate joka, atek zabalik dauzkaguentzat ez da ezusterik izan.

Urtetan herrigintzan

elkarrekin gabiltzanok ez dugu arazorik izan gure zerrenda osatzeko. Ez dakit hau ona ala txarra den, dakidana da ezagutzen gaituzten herritarrentzat argia dela, nor garen eta zer nolako balioak defendatzen ditugun adierazteko ez dugula publizitate gizenik behar, gure urtetako jardunak hor direla alegia. Beste zerrendak, eskuindarrenak bereiziki izan dituzte lanak jendea biltzen eta egituratzen. Gaitz esanez bete dituzte bazterrak beren arteko haserreak direla medio. Izan ere, Poulou jaun feud

Herriko bozak

dalak lanak izan ditu kanpotik bere morroiak kontrolatzen eta bere aginpidetara ekartzen.

Inongo lotsarik gabe abertzaleak terroristatzat tratatu dituenak, orain harro agertzen zaigu bere morroien zerrendan holako bi badituela iragarri. Jada, abertzale izatea ere normala zaio. Frantses nazionalistek behar gaituztela esan nahiko du honek, pastizaren krematzat bada ere. Aukeratutako abertzale bi horiek ez ditugu ezagutzen gure inguruan, sobra ere klandestinoak ditugu aberri gintzen. Hala ere, poztzen gaitu orain artean deabru madarikatutzat gintuztenek gure beharra eduki izana. Ongi goazenaren seinale da. ■